

ERABAKIA, 2021eko URTARRILAREN 11koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, PERTSONALEKO GERENTEORDETZARAKO F 137 BULEGOKO BURUA LANPOSTUA ALDI BATEZ BETETZEKO ESLEIPENAREN ONDORIO DATA ALDATZEN DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2020ko azaroaren 16ko erabakiaren bidez epigrafean aipatutako lanpostua aldi batez zerbitzu betekizunen bidez betetzeko esleipena egin zen.

Bigarrena.- Erabakiaren I. Eranskinean esleipenaren ondorio data 2021eko urtarrilaren 11a izango zela aipatzen zen.

Hirugarrena.- Hasteko data aldatu da. 2021eko martxoaren 1a izango da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua)
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAAn).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela

merrezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Bosgarrena.- Akordioaren 7.2 artikulua, azken parrafoan adierazten du "*Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da lanpostuan edo zerbitzuen eginkizunaren helburuko eginkizunetan, adjudikaziotik gehien dela hiru hilabetetara, lanean epe luzeagoan hasteko gomendatuko luketen arrazoi objektiboak tartean ez badira. Hautatutako izangaia ez bada zerbitzu betekizunak betetzen hasten, administrazioak puntuazio gehien daukan hurrengo izangaia hautatu ahal izango du, horretarako erabaki arrazoitua emanda.*"

Beste aldetik, 10.1 artikuluan esaten da "*Zerbitzuen betekizunak ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu aukeratutako pertsona lanpostuan lanean hasten den egunetik aurrera.*"

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- JOSEFINA FERNANDEZ VILLAVERDE funtzionarioa izendatzea, Pertsonaleko Gerenteordetzarako F 137 Bulegoko burua 2021eko martxoaren 1eko ondorio dataz.

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei eta nomenen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko urtarrilaren 11n.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHA)

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

